ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2014ko abenduaren 22a, astelehena • 145 zk.

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua, abenduaren 10ekoa, onartzen duena 187 eredua, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitorpenarena eta akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenarena. Urteko laburpena**

187 eredua urtarrilaren 24ko 41/2000 Foru Aginduak onartu zuen, zeinaren bidez onartu ziren, batetik, 187 eredua, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipen eta konturako sarreren urteko laburpenarena, eta, bestetik, eredu hori nahitaez ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak.

Funtsezko araudiak eta zerga araudiak jasan dituzten aldaketak direla eta, beharrezkoa da 187 eredu berri bat onartzea.

Azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundeenak, zenbait aldaketa jasan ditu Espainian eratutako inbertsio funtsetako partaidetzak barne merkatuan kontu globalen sistema baten bidez komertzializatzeko modua emateko helburuaz, halatan non inbertsio zerbitzuak emateko baimendutako erakundeen bitartez nahiz bestelako erakunde kudeatzaileen bitartez –Espainiako lurraldean helbidea izan edo bertan finkatuta daudela– komertzializatutako partaidetzak komertzializatutako funtsa kudeatzen duen sozietateko partaideen erregistroan komertzializatzailearen izenean eta partaideen kontu agertu ahal izan daitezen.

Aldaketa horien ondorioz, sozietate kudeatzaileak ez du jada funtseko partaideen informazio guztia edukiko. Aitzitik, haietako batzuen ingurukoa edo, zenbait kasutan, horren zati bat erakunde komertzializatzaileen erregistroetan agertuko da. Hortaz, beharrezkoa da erakunde horiek finantza eta zerga eremuetan eginbeharrak bereganatzea.

Beste alde batetik, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan zenbait aldakuntza egin dira talde inbertsioko espainiar erakundeak atzerrian komertzializatzeari buruz aurreikusitako informazio betebeharretan. Aldakuntza horiek behartu egiten dute 187 eredu berri bat onartzera, zeren eta helbidea atzerrian duten erakunde komertzializatzaileek Arabako Foru Aldundian aurkeztu behar baitute beren akzio edo partaidetzen mugaz gaindiko komertzializazioari buruzko informazioa, akzioen edo partaidetzen titulartasunetik eratorritako errentak Arabako Lurralde Historikoan lortutakotzat jotzen badira.

Informazio betebehar horiek ezartzeko posibilitatea azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenaren, hamargarren xedapen gehigarrian oinarritzen da. Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak, kontu, eragiketa eta finantza aktiboen inguruko informazioa emateko betebeharra arautzen duenak, garatu zuen arau hori.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

**1. artikulua. 187 eredua onartzea**

1. Onartzen da 187 eredua, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitorpenarena eta akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenarena.

Eredu hori, foru agindu honen I. eranskin moduan ageri dena, laburpen orri batek osatzen du. Orri honek bi ale ditu, bata administrazioarentzat eta bestea interesdunarentzat.

2. Aurkezpena, foru agindu honen II. eranskin moduan jasotako diseinu fisiko eta logikoetara moldatuta dagoen eta ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian egin beharko da nahitaez.

**2. artikulua. 187 eredua aurkeztu behar dutenak**

187 eredua aurkeztu beharra dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga arautzen dituzten lege eta erregelamendu araudian ezarritakoaren arabera zerga horietako atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dauden pertsonek, baldin eta, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatzeko edo itzultzeko eragiketen ondorioz, atxikipenari edo konturako sarrerari loturiko errentarik ordaintzen badute.

Era berean, 187 eredua aurkeztu behar dute, baita ere, abenduaren 23ko 11/2008 Foru Dekretuak, kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen inguruko informazioa emateko betebeharra arautzen duenak, 7. artikuluan aipatzen dituen pertsona edo erakundeek, talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak helburu dituzten eragiketei buruz.

**3. artikulua. Informazioaren gaia**

187 ereduan aitortu beharko dira, foru agindu honen II. eranskinean jasotzen diren diseinuen arabera, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketatik eratorritako ondare irabaziak edo galerak eta emaitzak, horien gainean egin diren atxikipenak eta konturako sarrerak, holakorik izanez gero, eta aipatutako balioak eskuratzeko eta besterentzeko eragiketak ere bai.

**4. artikulua. 187 eredua aurkezteko epea**

187 ereduaren aurkezpena (ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian) urte bakoitzeko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egunen barruan egingo da, aurreko azken urte naturalean egindako eragiketei eta/edo atxikitako kopuruei eta egindako konturako sarrerei buruz.

**5. artikulua. 187 eredua aurkezteko epea**

187 ereduaren aurkezpena, ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegoetan zuzenean nahiz bulego horretara zuzendutako posta arrunt edo ziurtatu bidez egin daiteke.

**6. artikulua. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak aurkezteko prozedura**

1. Aitortzaileak ondoko agiri hauek aurkeztu behar ditu:

Bat. 187 ereduaren laburpen orriaren bi aleetan (administrazioarentzakoan eta interesdunarentzakoan), eskatutako identifikazio datu guztiak jarri behar dira, eta identifikazio fisikaleko zenbakiaren fotokopia erantsi beharko zaio.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Halaber, ale horiek behar den bezala sinatuta egon beharko dira, behar diren lekuetan sinatzailearen nortasuna adierazita, baita aipatutako laburpen orrian eskatzen diren gainerako datuak ere.

Jasotzen duen bulegoak zigilua ipini ondoren, aitortzaileak 187 ereduko laburpen orriaren interesdunarentzako alea hartuko du beretzat, aurkeztu izanaren froga gisa.

Bi. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak etiketa bat eduki beharko du bere kanpoaldean itsatsita, eta bertan idatzi behar dira ondoren zehazten diren datuak, ezinbestez hurrenkera berean:

a) Ekitaldia

b) 187 aitorpen eredua

c) Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia

d) Aitortzailearen abizenak eta izena edo sozietatearen izena.

e) Aitortzailearen bizilekua, udalerria eta posta kodea

f) Harremanetarako pertsonaren abizenak eta izena

g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena

h) Erregistroen kopurua

i) Euskarriaren dentsitatea

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da bakoitza idaztea goiko zerrendan dagokion letra aurretik ipinita.

Fitxategia ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri batean baino gehiagotan aurkezten bada, euskarri bakoitzak bere etiketa izan behar du, segidan numeratuta: 1/n, 2/n, etab., “n” euskarri guztien kopurua izanik. Bigarren eta hurrengo aleetako etiketan, goiko a), b), c) eta d) letretan azaldutako datuak besterik ez da jarri behar.

2. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrien harrera guztiak behin-behinekoak izango dira, dagozkien administrazio jarduketen ondorioz.

**7. artikulua. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatzearen edo itzultzearen ondorioz ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako emaitza edo irabazien gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak**

1. Zergapekoek zerga administrazioaren eskura edukiko dituzte egindako atxikipenak eta konturako sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak, 65. artikuluan aipatzen duen iraungitze epean.

Espainiako barne araudian zergadunaren egoitzarengatik aurreikusten diren salbuespenak aplikatuta atxikipena edo konturako sarrera egiten ez diren kasuetan, haren egoitza dagoen herrialdeko zerga agintariek jaulkitako egoitza fiskalaren ziurtagiri baten bitartez frogatu behako da.

Zerga bi aldiz ordaintzea ekiditeko Espainiak izenpetu duen eta informazio trukerako klausula duen hitzarmen bateko salbuespenak aplikatuta atxikipena egiten ez denean, edo horretan finkatutako zergapetze mugak aplikatuta egiten denean, dagokion zerga agintariak jaulkitako egoitza fiskalaren ziurtagiri baten bidez frogatu beharko da. Ziurtagiri horretan espresuki adierazi beharko da zergaduna egoiliarra dela hitzarmenean definitutako zentzuan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatu diren egoitza ziurtagiriek urtebeteko balioaldia izango dute, jaulkitzen diren egunetik aurrera.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Zerga ordaindu izanagatik atxikipenik egiten ez denean, egiaztatu beharko da errenta horri dagokion eta zergadunak edo bere ordezkariak aurkeztu duen zerga aitorpenaren bidez.

2. Talde inbertsioko espainiar erakundeen akzio edo partaidetzak mugaz gaindi komertzializatzen baldin badira egoitza atzerrian duten erakunde komertzializatzaileen izenean dauden kontu globalak (maiatzaren 17ko 40/2011 Foru Dekretuak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegia onartzen duenak, bigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituenak) erabiliz, egoitza egiaztatzeko ondoren azaltzen den prozedura ezartzen da, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek talde inbertsioko espainiar erakundeen partaidetza edo akzioen eskualdaketa edo itzulketaren ondorioz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenak edo konturako sarrerak egiteari begira:

a) Erakunde komertzializatzailearen egoitza zerga bi aldiz ordaintzea ekiditeko Espainiak informazio trukerako klausula duen hitzarmen bat izenpetuta daukan herrialde batean baldin badago, hark sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari ziurtagiri bat egin eta eman beharko dio talde inbertsioko erakunde bakoitzeko edo, hala dagokionean, horren partaidetzen konpartimentu edo mota edo akzioen serie bakoitzeko, talde inbertsioko erakundeak itzulketa edo eskualdaketa egiten duen aldiro, eta bakar-bakarrik ondare irabaziak sortzen dituzten eragiketei buruz. Ziurtagiri horrek honako hauek jaso beharko ditu:

1. Ziurtagiria jaulkitzen den tokia eta eguna.

2. Erakunde komertzializatzailearen izena eta bere egoitza dagoen herrialdeko helbide osoa. Halaber, zerga bi aldiz ordaintzea ekiditeko Espainiak informazio trukerako klausula duen hitzarmen bat izenpetuta daukan herrialde batean egoitza duen erakunde komertzializatzaileari zerga administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia ere jaso beharko da, salbu eta, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegiak, uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onartuak, xedapen gehigarri bakarreko 3. idatz zatiko c) letran xedatutakoarekin bat etorriz, ez badago behartuta agindu horretan aipatzen diren banakako zerrendak aurkeztera.

3. Ziurtagiria izenpetu duenaren identifikazioa eta kargua. Izenpetzeko ahalmen nahikoa izan beharko du.

4. Talde inbertsioko erakundearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga administrazioak esleitua, eta egoitza fiskala.

5. Hala badagokio, partaidetzen konpartimentu eta motaren edo akzioen seriearen izena.

6. Talde inbertsioko erakundearen akzioen edo partaidetzen ISIN kodea edo, horren faltan, beraien konpartimentu, mota edo seriearena.

7. Hala badagokio, erakunde kudeatzailearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga administrazioak esleitua, eta egoitza fiskala.

8. Eskualdatze edo itzultze data.

9. Egoitza erakunde komertzializatzailearen herrialde berean duten zergadunei dagokienez, beraiek atxikipenetik kanpo badaude salbuespen baten aplikazioa dagokielako ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 14. artikuluan xedatutakoarengatik, edo zerga bi aldiz ordaintzea ekiditeko aplikagarria den hitzarmenaren ondorioz, bereiz adierazi beharko dira ondare irabaziak lortu dituzten eskualdatzaileen kopurua, itzuli edo eskualdatu diren partaidetza edo akzioen kopurua, eskualdaketa edo itzulketa horien guztirako zenbatekoa, eta eskualdatutako edo itzulitako akzio edo partaidetzen eskuraketaren guztirako zenbatekoa.

10. Gainerako zergadunei dagokienez, bereiz adierazi beharko dira ondare irabaziak lortu dituzten eskualdatzaileen kopurua, itzuli edo eskualdatu diren partaidetza edo akzioen kopurua, eskualdaketa edo itzulketa horien guztirako zenbatekoa, eskualdatutako edo itzulitako akzio edo partaidetzen eskuraketaren guztirako zenbatekoa, eta ondare irabazien guztirako zenbatekoa.

Egoitza Espainian duten sozietate kudeatzaile edo inbertsio sozietateek goian aipatu den ziurtagiriaren bitartez frogatu ahal izango diete barneko nahiz itundutako araudiaren ondorioz salbuespen baten aplikazioz atxikipena edo konturako sarrera egin beharretik kanpo daudela salbuespen hori egiteko eskubidea duten eta komertzializatzailearen herrialde berean egoitza duten zergadunei; baita ere, bide beretik frogatu ahal izango dute ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 31. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoaren ondorioz foru arau horren 25. artikuluko 1. idatz zatiko f) letrako 3. zenbakian aurreikusitako karga tasa gainerako zergadunek lortutako ondare irabazien gainean aplikatuta ateratzen den atxikipena edo konturako sarrera. Gainera, atzerritar erakunde komertzializatzaileak sozietate kudeatzaileei edo inbertsio sozietateei bere egoitza fiskalaren ziurtagiria bidali beharko die, bere herrialdeko zerga agintariek emana. Ziurtagiri horrek hiru urteko balioaldia izango du, jaulkitze datatik aurrera.

b) Atzerritar erakunde komertzializatzaileak aurreko a) letraren barruan dauden herrialde edo lurraldeak ez beste batean badu bere egoitza, sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari ziurtagiri bat egin eta eman beharko dio talde inbertsioko erakunde bakoitzeko edo, hala dagokionean, horren partaidetzen konpartimentu edo mota edo akzioen serie bakoitzeko, talde inbertsioko erakundeak itzulketa edo eskualdaketa egiten duen aldiro, eta bakar-bakarrik ondare irabaziak sortzen dituzten eragiketei buruz. Ziurtagiri horrek honako hauek jaso beharko ditu:

1. Ziurtagiria jaulkitzen den tokia eta eguna.

2. Erakunde komertzializatzailearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga administrazioak esleitua, eta bere egoitza duen herrialdeko helbide osoa.

3. Ziurtagiria izenpetu duenaren identifikazioa eta kargua. Izenpetzeko ahalmen nahikoa izan beharko du.

4. Talde inbertsioko erakundearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga administrazioak esleitua, eta egoitza fiskala.

5. Hala badagokio, partaidetzen konpartimentu eta motaren edo akzioen seriearen izena.

6. Talde inbertsioko erakundearen akzioen edo partaidetzen ISIN kodea edo, horren faltan, beraien konpartimentu, mota edo seriearena.

7. Hala dagokionean, erakunde kudeatzailearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga administrazioak esleitua, eta egoitza fiskala.

8. Eskualdatze edo itzultze data.

9. Eskualdatzaileen kopurua.

10. Itzuli edo eskualdatu diren partaidetza edo akzioetatik zergadun horiei dagozkienen kopurua.

11. Itzulketa edo eskualdaketen guztirako zenbatekoa.

12. Itzulketa edo eskualdaketa horiei dagokien eskuraketaren guztirako zenbatekoa.

13. Ondare irabazien guztirako zenbatekoa.

Egoitza Espainian duten sozietate kudeatzaile edo inbertsio sozietateek goian aipatu den ziurtagiriaren bitartez frogatu ahal izango dute ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 25. artikuluko 1. idatz zatiko f) letrako 3. zenbakian aurreikusitako karga tasa zergadunek lortutako ondare irabazien gainean aplikatuta ateratzen den atxikipena edo konturako sarrera. Ziurtagiri horrek ez du eraginik izango barneko nahiz itundutako araudiaren ondorioz salbuespen baten aplikazioz atxikipena edo konturako sarrera egin beharretik kanpo izateko. Gainera, atzerritar erakunde komertzializatzaileak sozietate kudeatzaileei edo inbertsio sozietateei bere egoitza fiskalaren ziurtagiria bidali beharko die, bere herrialdeko zerga agintariek emana. Ziurtagiri horrek hiru urteko balioaldia izango du, jaulkitze datatik aurrera.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

c) Atzerritar erakunde komertzializatzaileak aurreko a) eta b) letretan adierazi diren ziurtagiriak, hilabete berari buruzkoak, ondorengo hilabetearen lehenengo 10 egunetan egin eta eman ahal izango dizkio sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari.

Holako kasuetan, atzerritar erakunde komertzializatzaileak ziurtagiri bakarra egin ahal izango du, letra horietan adierazten diren hilabeteko datuak jasotzen dituena, eskualdaketa edo itzulketa dataren arabera ordenatuta, hileroko ziurtagiria dela adieraziz.

Aurreko paragrafoan jasotzen den bidaltzeko modua gorabehera, erakunde komertzializatzaileak sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari jakinarazi beharko dio, talde inbertsioko erakundeak itzulketa edo eskualdaketa egiten duen aldiro, atxikipena edo konturako sarrera behar bezala egiteko beharrezkoa den informazioa.

d) Espainian egoitza duen erakunde kudeatzaileak edo, hala dagokionean, inbertsio sozietateak idatz zati honetan jasotzen diren agiriak zerga administrazioaren eskura eduki beharko ditu otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorraren, 65. artikuluan aipatzen den iraungitze epean.

e) Erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio edo partaidetzen informazio aitorpena eta atxikipenak eta konturako sarreren urteko laburpena (187 eredua) betetzeari begira, komertzializatzaileak jaulkitako ziurtagiri bakoitzean sartzen diren eskualdaketa edo itzulketei buruzko informazioa, hala dagokionean, bi eragiketa erregistrotan bilduko du: bata, barneko edo itundutako arau baten ondoriozko salbuespenaren aplikazioz atxikipenik jasan ez duten zergadunei buruzkoa, eta bestea gainerako zergadunei buruzkoa. Erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak, bi kasu horietan, atzerritar erakunde komertzializatzailea jarriko du bazkide edo partaide bezala. Ereduan bazkide edo partaideari buruz jasotako gainerako informazioa, atzerritar komertzializatzaileari buruzkoa dela iritziko da.

Irabaziaren zenbatekoa, hala dagokionean, urtebete edo gutxiagoko sortze aldia dutenei buruzko eremuan jarriko da.

f) 2. idatz zati honetan arautzen den egiaztatzeko prozedura berezia gorabehera, zerga administrazioak ahalmena du edozein zergaduni eskatzeko, hala dagokionean, egiazta dezala hitzarmena aplikatzeko eskubidea duela, dagokion zerga agintariak egindako egoitza fiskalaren ziurtagiri egokia, hitzarmenaren araberakoa, aurkeztuz, edo zergadunaren egoitzarengatik barneko araudiko salbuespenaren aplikazioa bidezkoa dela, dagokien zerga agintariek jaulkitako egoitza fiskalaren ziurtagiri bat aurkeztuz.

g) 2. idatz zatiko aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, berdin du zein herrialde edo lurraldetan duen egoitza erakunde komertzializatzaileak, eta hartzaileak egoitza duen berbera ez bada ere, atxikipena edo konturako sarrera egin beharra duenak artikulu honetako 1. idatz zatian xedatuta dagoena aplikatu ahal izango du atxikipena egin beharretik kanpo dagoela frogatzeko, barneko edo itundutako araudiaren ondorioz zergadunaren eskubidea den salbuespen bat aplikatu behar izateagatik. Kasu honetan, atxikipena edo konturako sarrera egin beharra duenak zergadunen egoitza fiskalaren ziurtagiri egokiak izan beharko ditu, eta 7. artikulu honetako 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera horiek gorde.

2. idatz zati honetako a) eta b) letretan adierazten diren ziurtagirietan, zergadun horiei buruzko informazioa bereizi egingo da, ondoko hauek adieraziz:

1. Pertsona mota: fisikoa edo erakundea.

2. Abizenak eta izena, edo izena.

3. Espainiako identifikazio fiskaleko zenbakia, zergadunak baldin badu.

4. Egoitza duen lurralde edo herrialdean zergadunari esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin badu.

5. Egoitza duen herrialdea edo lurraldea, dagozkion herrialde eta lurraldeen kodeen arabera.

6. Itzuli edo eskualdatu diren partaidetza edo akzioetatik zergadunari dagozkionen kopurua.

7. Itzulketa edo eskualdaketaren zenbatekoa.

8. Itzulketa edo eskualdaketari dagokion eskuraketaren zenbatekoa.

9. Ondare irabaziaren zenbatekoa.

Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio edo partaidetzei buruzko informazio aitorpena eta atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena (187 eredua) betetzeari begira, erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak ez du elkartuko zergadun horiei buruzko informazioa, haien izeneko banako erregistroetan agertuko baita.

**8. artikulua. Talde inbertsioko espainiar erakundeetako akzioak edo partaidetzak atzerriko erakunde komertzializatzaileen bitartez harpidetu edo eskuratzea**

Talde inbertsioko espainiar erakundeetako akzioak edo partaidetzak egoitza atzerrian duten eta azaroaren 4ko 35/2003 Legearen, talde inbertsioko erakundeei buruzkoaren, Arautegiak 21. artikuluan aipaturiko komertzializazio kontratuen ondorioz beren bezeroen kontu diharduten erakunde komertzializatzaileen bitartez harpidetu edo eskuratzen diren kasuetan, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio eta partaidetzei buruzko informazio aitorpena eta atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena (187 eredua) betetzeari begira, erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak atzerritar erakunde komertzializatzailea jarriko du bazkide edo partaide moduan.

Ereduan bazkide edo partaideari buruz jasotako gainerako informazioa, atzerritar komertzializatzaileari buruzkoa dela iritziko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean jartzen den unetik aurrera, indargabeturik geldituko dira hartan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki urtarrilaren 24ko 41/2000 Foru Agindua, zeinaren bidez onartu ziren, batetik, 187 eredua, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipen eta konturako sarreren urteko laburpenarena, eta, bestetik, eredu hori nahitaez ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2014ari buruzko aitorpena aurkezteko aplikatuko da lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 10a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*
*AITOR URIBESALGO LORENZO*

*Ogasun zuzendaria*
*JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

**Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko aitorpen informatiboa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zioz talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta lortutako ondare errentei eta irabaziei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena**

Declaración informativa de acciones y participaciones representativas del capital o del patrimonio de las instituciones de inversión colectiva y resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes en relación con las rentas o ganancias patrimoniales obtenidas como consecuencia de las transmisiones o reembolsos de esas acciones y participaciones

**URTEKO LABURPENA** ■ RESUMEN ANUAL

# 187

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**1 IDENTIFIKAZIOA** IDENTIFICACIÓN

**Identifikazio txartela jartzeko lekua**
Espacio reservado para la etiqueta identificativa

**2 EKITALDIA** EJERCICIO

**Ekitaldia** ■ Ejercicio

**3**

**Aitorpenaren identifikazio zenbakia**
Número identificativo declaración: 187

**4 HARREMANETARAKO PERTSONA** ■ PERSONA DE CONTACTO

**Deiturak eta izena** ■ Apellidos y nombre

**Telefonoa** ■ Teléfono

**e-mail**

**5 AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA** ■ DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA

**AITORPEN OSAGARRIA** ■ DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA ☐

**ORDEZKO AITORPENA** ■ DECLARACIÓN SUTITUTIVA ☐

**Aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia**
Número identificativo declaración anterior: 187

**6 AITORPENAREN DATUAK** RESUMEN DECLARACIÓN

| | | |
|---|---|---|
| **Aitortutako eragiketak, guztira**<br>Número total de personas relacionadas | 01 | |
| **Eskuraketen zenbatekoa, guztira**<br>Importe total de las adquisiciones | 02 | |
| **Besterentzeen zenbatekoa, guztira**<br>Importe total de las enajenaciones | 03 | |
| **Atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa, guztira**<br>Importe total de las retenciones e ingresos a cuenta | 04 | |

**7 DATA ETA IZENPEA** FECHA Y FIRMA

**8 ZIGILUA ETA SARRERA ERREGISTROA** SELLO Y REGISTRO DE ENTRADA

RE. 14/192

**PSN** ■ **PVP: 0,06€**

## 187 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

**187 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztu behar da nahitaez. Horrekin batera laburpen orri hau aurkeztu behar da.**

**1. IDENTIFIKAZIOA**

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak emandako identifikazio etiketa itsatsi behar da.

**2. EKITALDIA**

Ekitaldia. Aitorpenaren urte naturalaren lau digituak idatzi behar dira.

**3. AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA**

Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. Zenbaki sekuentziala izan behar da; lehenengo hiru digituak 187 izan behar dira (ereduaren kodea).

**4. HARREMANETARAKO PERTSONA**

Harremanetarako pertsonaren datuak jarri behar dira.

**5. AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA**

Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, lauki hauetako bat bete behar da nahitaez:

**Aitorpen osagarria.** Aitorpen berriaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren jasotako kopuruak aitortzea bada, lauki honetan "X" ipini behar da. Honelako aitorpenetan aurretik aitortu gabe utzitako kopuruak baino ez dira sartu behar.

**Ordezko aitorpena.** Aitorpenaren xedea aurreko beste aitorpen bat, okerreko datuak eduki dituena, osorik deuseztatzea eta ordeztea bada, lauki honetan "X" ipini behar da.

**Aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia.** "Aitorpen osagarria" eremua edo "Ordezko aitorpena" eremua "X" batez markatu bada, ordeztutako edo osotutako aitorpenaren identifikazio zenbakia adierazi behar da.

**6. AITORPENAREN LABURPENA**

(01) laukia: **"Aitortutako eragiketak, guztira"**. Euskarrian sartutako eragiketen guztirako kopurua zehaztu behar da.

(02) laukia: **"Eskuraketen zenbatekoa, guztira"**. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko eragiketa guztien zenbatekoen batura zehaztu behar da, behar den koefizientea aplikatuz eguneratuta.

(03) laukia: **"Besterentzeen zenbatekoa, guztira"**. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak besterentzeko eragiketa guztien zenbatekoen batura zehaztu behar da.

(04) laukia: **"Atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa, guztira"**. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak besterentzeko eragiketa guztietan aplikatutako atxikipenen edo konturako sarreren batura zehaztu behar da.

**7. ZIGILUA ETA SINADURA**

Zigilua eta sinadura propio ezarritako eremuan jarri behar dira; horrez gainera eremu berean sinatzailearen izen-abizenak eta kargua edo enplegua idatzi behar dira.

**8. SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA**

Eremu hau Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak bete behar du.

**NON ETA NOIZ AURKEZTU**

Urte natural batean egindako eragiketak edota aplikatutako atxikipenak eta konturako sarrerak agertzen dituen 187 eredua (ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria) hurrengo urteko urtarrileko lehen hogeita hamar naturaletan aurkeztu behar da. Bi modu daude: Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegoetan zuzenean aurkez daiteke edo bestela posta arruntez zein posta ziurtatuz bidal daiteke.

**Adi:** Aitortzaile bakoitzak 187 EREDUKO AITORPEN BAT BAKARRIK aurkez dezake ekitaldi bakoitzeko; nolanahi ere, horrez gainera aitorpen osagarriak eta ordezkoak ere aurkez daitezke.

## INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 187

**Es obligatorio presentar el Modelo 187 en soporte directamente legible por ordenador que deberá ir acompañado de la presente hoja resumen.**

**1. IDENTIFICACIÓN**

Se deberá adherir la etiqueta identificativa que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Alava.

**2. EJERCICIO**

Ejercicio. Se consignarán los cuatro dígitos del año natural al que corresponda la declaración.

**3. NÚMERO IDENTIFICATIVO DE LA DECLARACIÓN**

Se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración. El número identificativo que habrá de figurar, será un número secuencial cuyos tres primeros dígitos se correspondan con el código 187.

**4. PERSONA DE CONTACTO**

Se consignarán los datos que se especifican de la persona de contacto.

**5. DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA**

En el caso excepcional de segunda o posterior presentación de declaraciones, deberá cumplimentarse obligatoriamente uno de las siguientes casillas:

**Declaración complementaria.** Se consignará una "X" en esta casilla cuando la presentación de la declaración tenga por objeto incluir percepciones que, debiendo haber sido incluidas en otra declaración del mismo ejercicio presentada con anterioridad, hubieran sido completamente omitidas en la misma. En la declaración complementaria solamente se incluirán las percepciones omitidas que motivan su presentación.

**Declaración sustitutiva.** Se consignará una "X" en esta casilla cuando la presentación de la declaración tenga por objeto anular y sustituir completamente a otra declaración anterior en la cual se hubieran incluido datos inexactos o erróneos.

**Número identificativo de la declaración anterior.** En el caso de que se haya consignado una "X" en el campo "Declaración complementaria" o en el campo "Declaración sustitutiva", se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración a la que sustituye o complementa.

**6. RESUMEN DE LA DECLARACIÓN**

Casilla (01) **"Número total de las operaciones relacionadas".** Se consignará el número total de operaciones declaradas en el soporte.

Casilla (02) **"Importe total de las adquisiciones"**. Se consignará la suma total de los importes correspondientes a las operaciones de adquisiciones de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, actualizadas por su correspondiente coeficiente.

Casilla (03) **"Importe total de las enajenaciones"**. Se consignará la suma total de los importes correspondientes a las operaciones enajenaciones de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva.

Casilla (04) **"Importe total de las retenciones e ingresos a cuenta"**. Se consignará la suma total de los importes correspondientes a las cantidades retenidas o ingresadas a cuenta correspondientes a enajenaciones de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva.

**7. SELLO Y FIRMA**

En el espacio reservado para la fecha y firma, se consignará ambas y, además, el nombre, apellidos y cargo o empleo del firmante.

**8. SELLO REGISTRO ENTRADA**

Espacio a cumplimentar por el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Alava.

**LUGAR Y PLAZO DE PRESENTRACIÓN**

La presentación del Modelo 187 en soporte directamente legible por ordenador se realizará bien directamente en las oficinas del Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos o bien a través de correo ordinario o certificado dirigido a la mencionada oficina, en los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con las operaciones realizadas y/o cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados correspondientes al año natural inmediato anterior.

**Importante:** Cada declarante deberá presentar UNA ÚNICA DECLARACIÓN DEL MODELO 187, sin que esté permitida la presentación de más de una declaración correspondiente a un mismo ejercicio, excepto que se trate de declaraciones complementarias o sustitutivas.

## ERANSKINA II

## 187 EREDUAREN FITXATEGIEK EDUKI BEHARREKO DISEINU LOGIKOAK ETA FISIKOAK

### ERREGISTROEN DESKRIPZIOA

